

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak abendu eta urtarrilaren artean ordainduko du 2012an kendutako aparteko ordainsariaren % 75

% 25 2015. urtea amaitu aurretik ordainduko da, eta % 50 urtarrileko lehen egunetan; hala, zenbateko guztia itzulita geratuko da

Miércoles, 16 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak bere langileei abendu eta urtarrilaren artean 2012an kendutako aparteko ordainsariaren % 75 itzuliko die, ordaintzeke zegoena oraindik.

Hala iragarri du kontseilari eledun Ana Ollok, eta % 25 2015. urtea amaitu aurretik ordainduko dela zehaztu du (abenduan, ziur asko); beste % 50, berriz, 2016ko lehen egunetan. Zenbateko horiek itzulita daudenean, orain arte eusten zitzaion ordainsariak aurreratzeko sistema kenduko da.

Datozen asteotan, Foru Gobernuak neurria betetzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu.

Gogoratuko denez, [Nafarroako Gobernuak ordainsariaren % 24,04 ordaindu zuen jadanik](#), martxoko soldatarekin.

Itzulketa jasotzeko eskubidea dute guztiz edo zati bat jaso gabeko langileek eta ondoren beste era batera berreskuratu ez zutenek, kontuan hartu gabe gaur egun Foru Administrazioan zerbitzuak ematen dituzten ala ez.



Nafarroako Jauregiko irudia.